

LUIX INTXAUSPE AROZAMENAK, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko administrazio kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2017ko uztailaren 13an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko atzeko kargako bi ibilgailu prozedura ireki bidez alokairuan hornitzeko kontratuaren behin behineko esleipena erabakitzea.

2017ko martxoaren 31n Garbitaniako Administrazio Kontseiluak burutu bilkuran goian aipaturiko kontratazio prozesua abiarazteko erabakia hartu ostean, 2017ko maiatzaren 17an argitaratu zen Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean.

Eskaintzak jasotzeko epearen barruan ondorengo eskaintzak jaso ziren:

1. ENVIRORENT XXI S.L.
2. FRAIKIN ASSETS SAS (Sucursal España)

Eskaintza hauek Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerentziak, Ingurumen Teknikariak, Koordinatzaile batek eta langileen ordezkari batek, Usurbilgo Udal Zerbitzu saileko zinegotziak eta Hernaniko Udal Ingurumen saileko zinegotziak, osatutako mahaiak aztertu ditu.

Dokumentazioa aztertzerakoan bi eskaintzaileei eskatu zaie ebaluaketa teknikoa egiteko falta zitzaien dokumentazio. Biei 3 eguneko epea eman zitzaien eskatutako dokumentazioa aurkezteko, biek ala biek epeak bete zituztelarik.

Ondoren, kontratazio mahaia berriro bildu zen eskaintzaile bakoitzak lortutako puntuazioa aztertzeko. Ondorengo tauletan zehazten da eskaintza bakoitzak lortutako puntuazioa:

ENVIRORENT	Eskaintza ekonomikoa (BEZ barne)	Entrega epea (egun)	Poltsaketa altura (mm)	Eje arteko espazio erabilgarria (m3)	Kabina altura (mm)	Mantenu zerbitzura distantzia (km)	GUZTIRA PUNTUAK
Eskaintza	4.416,50€	1	1.150 1.150	0,72 2,32	1.330 1.330	19	
Puntuak	44,42	10,00	10,00	7,62	10,00	10,00	92,04

FRAIKIN	Eskaintza ekonomikoa (BEZ barne)	Entrega epea (egun)	Poltsaketa altura (mm)	Eje arteko espazio erabilgarria (m3)	Kabina altura (mm)	Mantenu zerbitzura distantzia (km)	GUZTIRA PUNTUAK
Eskaintza	4.288,24€	3	1.168 1.168	1,99 1,99	1.365 1.365	19	
Puntuak	50	9,50	9,28	10,00	9,74	10,00	98,52

Horrela, puntu gehien lortu duen eskaintza FRAIKIN-ek eginikoa dela deliberatzen du kontratazio mahaiak, Administrazio Kontseiluari jakinarazten diona.

Horien guztien arabera, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak uztailaren 13an burutu bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adostu zituen:

Lehenengoa.- Puntuazioaren berri ematea eskaintzaile guztiei.

Bigarrena.- uztailaren 17tik aurrera 3 eguneko epea irekitzea erreklamazioak egiteko, azken eguna ekainaren 20a izan zelarik.

Hirugarrena.- erreklamaziotarako epea amaituta eta erreklamaziorik ez denez jaso, Fraikin enpresari hartutako erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek aurkeztu ditzan **eskaera hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:**

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146.1 artikulua eta baldintza partikularren agiri honen 7. puntuak aipatzen dituzten aurretiazko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa
- Bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen dokumentua edo kontratazio-organoak ziurtagiri hori zuzenean lortzeko baimena.
- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikulua arabera, kontratua betetzeko hitzartu dituen bitartekoak badituela ziurtatzen duen dokumentua.
- Ibilgailuen seguruen kopia.
- Era berean, E.J.Z.n kontatuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken erreziboaren kopia aurkeztu beharko duelarik.
- Behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen dokumentua.



Laugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko lehendakari eta gerenteari ahalmena ematea, eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratua gauzatu dezaten.

10 lan eguneko epealdiaren barruan FRAIKIN ASSETS SAS (Sucursal España)-k eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu ditu.

Horiek horrela, eta Administrazio Kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitutzat ematen da eta FRAIKIN ASSETS SAS (Sucursal España) enpresari jakinarazpen hau jaso eta hamabost lan egun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara etortzeko dei egiten zaio.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Hernanin, 2017ko azaroaren 20an

O.I



LEHENDAKARIA



IDAZKARIA